

4 Zurezko zaldi miragarria

Amaia eta Gontzal etxean ziren, jolasean.

–Gogoratzen al zara dendan ikusitako zaldi miragarri hartaz? –esan zion Amaiak–. Bada, nire logelan dago.

–Eman egin al dizute? –galdetu zion Gontzalek.

–Ez. Bere kasa etorri da. Atzo, zu joan ondoren, dendara itzuli nintzen zaldia ikustera. Hari begira egon nintzen eta, etxerantz nentorrela, segika nuela ohartu nintzen. Atzetik etorri, logelan sartu eta leiho ondoan geratu zen.

–Baina nola gerta liteke horrelakorik? –galdetu zion Gontzalek.

–Esan nizun, bada, zaldi miragarria zela!

ÁNGELA IONESCU
(moldatua)



1. Nor ari ziren jolasean etxean?

..... eta

2. Non ikusi zuten zaldia?

- ☐ Zalditegian.
- ☐ Dendan.
- ☐ Mendian.



3. Non dago orain zaldia?

4. Inguratu egia dioen esaldiaren zenbakia.

1. Zaldia Amaiaren atzetik joan zen.
2. Amaiak zaldiari jarraitu zion.

5. Noiz iritsi zen zaldi miragarria Amaiaren logelara?

- ☐ Gaur goizean.
- ☐ Atzo.
- ☐ Duela astebete.



Ebaluazioa

- Zuzendu zeure ariketak.
- Margotu berdez erantzun zuzen bakoitzari dagokion laukia.

1

2

3

4

5